

elkarte

57

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2022ko ABENDUA

www.elkartean.org



elkartean

elkartean@elkartean.org

Enplegua BAI Inklusioa Ere bai



ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoen erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasuna

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

KEMEN

Pertsona ezinduen kirol kluba

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtziko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrozefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidunen gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Faxa: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxa: 94 405 36 69
48004 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 31 67 70
Faxa: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

ARGITARATZAILEA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN
PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprimitzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua

OROKORRA

Desgaitasuna duten pertsonen lanerako eta enplegurako eskubideari buruzko 8. Ohar orokorra

4

- 5** • Desgaitasuna baloratzeko baremo berria.
- 6** • Irisgarritasuna sustatzea.
- 8** • Autonomia pertsonala eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea.
- 10** • Euskal autonomia erkidegoko hezkuntzari buruzko legearen aurreproiektuari egindako ekarpenak.
- 12** • Euskadiko bizigarritasun-baldintzei buruzko dekretua.
- 14** • Behatuz.
 - Nola hitz egin desgaitasuna duten pertsonen inguruan.
- 15** • Enpleguaren Euskal Legeari egindako proposamenak.

ARABA

- 16** • Gizarte-sustapena.
 - In memoriam.
 - Oharra! Banakako laguntzen deialdia argitaratu da.
- 17** • Europako Parlamentua-Freedom Drive 2022.
- 18** • Berdintasun kanpaina.
- 19** • Ehu-ko boluntarioritza azoka.
 - Urteko batzarra.
- 20** • Beste leku bat bilatu.

BIZKAIA

- 21** • Independent Life Europako landa proiektua.
- 22** • Erakundeen arteko lankidetzeta.
 - Kirol-saria.
 - Whatsapp - salaketa.
- 23** • Foru-Zerbitzuen kudeaketan emandako urteak.
- 24** • Arazoak nahi ditut.
 - Fekoor lan plotsa.
 - Desgaitasunagatiko edo mendekotasunagatiko zerga-kenkariak.

GIPUZKOA

- 25** • Laguntza-sisteman parte hartzeko prozesua.
 - Desgaitasuna duten enplegatu publikoak Gipuzkoan.
- 26** • 1. Ohar Orokorrari buruzko gidaliburua.
- 27** • Ordezkaritza-organo berrietan parte hartzea.
 - Irizar E-Mobility-rekin elkarlana.
- 28** • Giza eskubideen arloko prestakuntza.

DESGAITA- SUNA DUTEN PERTSONEN LANERAKO ETA ENPLEGURAKO ESKUBIDEARI BURUZKO 8. OHAR OROKO- ORRA

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak, hau da, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren gainbegiratze-organoak, 8. Ohar Orokorra onartu du, desgaitasuna duten pertsonen lanerako eta enplegurako duten eskubideari buruzkoa.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 27. artikulua aintzatesten du “*desgaitasuna duten pertsonen eskubidea besteen baldintza berdinetan lan egiteko; horrek barne hartzen du askatasunez aukeratutako edo onartutako lanaren bidez bizimodua ateratzeko aukera izateko eskubidea, lan-merkatu eta lan-in-guru ireki, inklusibo eta irisgarri*”.

Bestalde, 8. Ohar Orokorra adierazten du “*desgaitasuna duten pertsonentzako bereizitako enplegua, (tailer antolatutako, adibidez), ez dela lane-*



rako eskubidea pixkanaka gauzatzeko neurritzat hartu behar, lan-merkatu ireki eta inklusibo batean askatasunez aukeratutako edo onartutako enpleguaren bidez baino ez baita frogatzen”.

Era berean, lanerako eskubidea funtsezkotzat eta oinarrizkotzat jotzen du beste giza eskubide batzuk gauzatzeko, eta ezartzen du desgaitasuna duten pertsona asko ez direla eskubideen subjektu eta eskubideen titular gisa aintzatesten, baizik eta haien urritasunak bakarrik hartzen direla kontuan. Horregatik, eta behin eta berriz bere kezka adierazi ondoren estatu kideen politikek desgaitasunaren ikuspegi kapazitistari eusten diotelako, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioarekin bat datozen zenbait betebeharrak eta aldaketa eskatzen dizkie estatuei.

Oso onuragarritzat jotzen dugu ohar orokorra onartzea, eta, gure ustez, atzeraezina da Euskadiko erakunde publikoek eta desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunean inplikaturako eragile guztiek beharrezko politikak eta neurriak hartzea Konbentzioaren agindua betetzeko eta, horrela, lan-eremuan pertsona guztien aukera-berdintasunerako eskubidea bermatzeko. Laburbilduz, funtsezkoa da desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu-ereduaren eraldaketa bultzatzea, gaur egun indarrean dauden politika bereizleak gainditu ahal izateko.

Desgaitasuna baloratzeko

baremo berria

Desgaitasuna baloratzeko baremo berria 2023ko apirilaren 20an jarriko da indarrean, 2022ko urriaren 20ko BOEn argitaratu ondoren (888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena).

Balorazio-irizpide horiek Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Nazioarteko Konbentzioaren gizarte-eredura egokituko dira, giza eskubideen ikuspegia kon-tuan hartuta.

Arau berriak irizpide objektibo batzuk ezartzen ditu Estatu osoan desgaitasun-maila baloratzeko eta kalifikatzeko, eta, besteak beste, hobekuntza hauek jasotzen ditu:

- Herritar guztientzako baldintza berdinetan **bermatzen da**.
- Desgaitasun psikosoziala, autismoa edo gaixotasun arraroak eragiten dituzten errealitateen **balorazio eta kalifikazio zehatzagoa egiten du**.
- Presako izapide bat **ezartzen du** arrazoi humanitarioak edo premia sozial bereziak tartean daudenean desgaitasun-maila kalifikatzeko, hala nola gerra-eremuetako biktimak badira, edo osasun-arloko eta bizi-itxaropeneko premia sozial bereziak badituzte, (endekapenezko gaixota-



sunak, AEA, esaterako).

- Epeen murrizketa horretan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak **sartzen dira**; izan ere, Emakumearen aurkako Indarkeriari buruzko azken Makroinkestaren arabera, % 17,5ek indarkeria horrek eragindako desgaitasunen bat du.
- **Adingabeek** baldintza berdinetan baliatuko dituzte beren eskubideak, adinagatik edo desgaitasunagatik bereizkeriarik egin gabe. Beren egoerara egokitutako laguntza pertsonala eta laguntza teknikoak jasoko dituzte, eta helduek duten eskubide bera izango dute informazioa jasotzeko eta entzunak izateko.

Elkarteanek garrantzitsutzat jotzen du inplikaturako eragile guztien artean tresna berri horren inguruko prestakuntza eta ezagutza bultzatzea, oso garrantzitsua baita desgaitasun-egoerak zehazteko eta, ondoren, dagozkien baliabideak eskuratzeko. Era berean, ezinbestekoa da erakunde publikoek beren zerbitzuak eta prozedurak egokitzea, testuinguru berri horretan desgaitasuna duten pertsonen erantzun egokia emateko, betiere desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen ditugun Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin lan-kidetzan eta koordinatuta.

Irisgarritasuna sustatzea

Elkarteanek bizimodu independentea eta erabateko partaidetza izateko eskubidearen alde lan egiten du. Hori dela eta, hainbat jarduera egin ditugu irisgarritasun unibertsalean eta “*pertsona guztientzako diseinuan*” aurrera egin dezagun, besteen baldintza berdinetan moldatzeko aukera ematen diguten hiri eta herriak lortu ahal izateko. Nabarmentzekoak dira honako hauek:

KUTXAZAINAK

Elkartean Ilunion Accesibilidad konpainiarekin elkarlanean aritu da, desgaitasun fisikoa duen pertsonak banketxeetako kutxazain automatikoak erabiltzerakoan egiten duen interakzioa ikusarazteko proba batzuetan. Zehazki, LABORAL KUTXAK eskatu du azterketa, eta Gasteizko Pio XII.aren kalean dagoen bulegoko kutxazainein egin zen proba.

TRANBIAKO TXARTELA SALTZEKO MAKINAK

Tranbiaren etorkizuneko trazaduretan Irisgarritasun Legea betetzeko beharri buruz Euskal Trenbide Sarearekin harremanetan egoteaz gain, gaur egun Bilbon eta Gasteizen instalatuta dauden tranbiako txartelak saltzeko makinak fabrikatzaileak ere jarri dira **Elkarteanekin** harremanetan. Laguntzeko, instalazioetako batera joan gara, eta egungo makinek eskaintzen dutena eta horietan hobekuntzak ezartzeko beharra ea Legearekin bat datorren aztertu dugu.



IRISGARRITASUN PLAN INTEGRALAK

Elkartean laguntzaile-lanetan ari da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren esparruan Euskadiko irisgarritasun-plan integralei buruzko ponentzian, horren inguruko ereduak zehazteko, irisgarritasuna gaindituz, hau da, desgaitasuna duten pertsonentzako oztopo fisikoak desagerraztea ordezkatu nahi da kontzeptu zabalago batengatik, ingurune, prozesu, produktu eta zerbitzu guztiak pertsona guztiek erabiltzeko eta ulertzeko modukoak izatea bermatzeko.

APARKALEKUAK

Elkartean, lehenik eta behin, EKINBIDERI (*segurtasun publikoaren sistema hobetzeko herritarren ekimenean bulegoa*) eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Sailari zuzendu zaie, kolektiboak duen kezka azaltzeko, mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak oker erabiltzen direlako, eta administrazio publikoari eskatzeko herritar guztiei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina bat bere gain har dezala arlo horretan. Mugikortasun





urriko pertsonentzako aparkalekuetan dagokion txartelarekin bakarrik aparka daitezke ibilgailuak, baldin eta mugikortasun urriko pertsonak, txartelaren titularrak, auto horretan bidaiatzen badu (pertsonak autoan egon behar du, bertara sartzeko edo bertatik jaisteko).

HIRIARTEKO GARRAIOA

Elkartean Garraioen, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Estatu Idazkaritzari zuzendu zaio, hiriarteko garraioa erabiltzerakoan sortu diren gorabeherak direla eta. Izan ere, jakinarazi diguzuen moduan, autobus egokiturik ez dago, eta Estatuko zenbait helmugatarra bidaiatzea ezinezkoa da; erreserbak 48 ordu lehenago egin behar dira, eta konpainiak esaten dizun egunean eta orduan bidaiatu behar da, ez zuk behar duzunean, eta, bestela, ezin duzu bidaiatu. Hori dela eta, **Elkarteanek** eskatu du berma dadila Estatuko emakidei atxikitako autobus guztiek badituztela beharrezko baliabideak gurpil-aulkian bidaiatzen duten erabiltzaileen irisgarritasuna bermatzeko, indarrean dagoen araudia betez, administrazio-emakida si-



natu den eguna edozein izanda ere.

Euskadin, **Elkartean** hiru hiriburuen arteko hiriarteko garraioari buruzko ikerketa zuzentzen ari da. Galdetegi bat egin da, eta hiru lurraldeetako mugikortasun urriko pertsonak bidaiak egin dituzte hiri batetik bestera, ibilbide bakoitzaren datuak eta gorabeherak jasoz. Hiru autobus-geltokien (Bilbo, Donostia, Gasteiz) irisgarritasun-baldintzak ere aztertu dira. Une honetan, bildutako datuak aztertzeke fasean gauden, eta espero dugu ondorioak 2023an argitaratzea.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Elkartean elkarlanean ari da EHUrekin (*Euskal Herriko Unibertsitatea*), Psikologia fakultatearekin, desgaitasuna duten pertsonen hiri-mugikortasunari buruzko azterlan batean, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Sailak eskatuta. Horrela, azterlanaren arduradunekin eta **Elkarteaneko** bozeramaileekin topaketa telematiko orokor bat egin ondoren, hiru lurraldeetan mugikortasun urriko pertsona-taldeak osatu dira. Pertsona horiek ikertzaileekin elkarriketak izan dituzte eta ibilbide bat egin dute hiru hiriburuetan, hiri-autobusak, tranbiak, taxi egokituak eta hiri-mugikortasunean eragina duten elementu guztiak erabiltzeko zailtasunak egiaztatzeko. Azkenik, hiru erakundeetako (fekoor, elkartu, eginaren eginez) bazkideek galdetegi bat bete dute, eta hemendik eskerrak eman nahi dizkizuegu erantzun eta lagundu duzuen guztioi.

Mila esker!!!

Autonomia pertsonala

eta mendekotasun-egoeran

dauden pertsonak zaintzea

Elkarrean jakin zuen Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea aldatzen duen lege-aurreproiektuaren entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapidea hasi zela; horregatik, jakinarazi nahi dizkizuegu bizimodu independenteerako eskubidea bermatzea funtsezko helburu duten proposamen nagusietako batzuk:

1 Zioen azalpenean Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 19. artikulua eta haren garapen-tresnen aintzatespena sartzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideak aintzatesteko eta haien ingurunean modu independentean bizitzeko eskubidea bermatzen duten zerbitzuak eta prestazioak diseinatzeke funtsezko elementua baita.

2 Era berean, berariaz aipatu behar da 5. Ohar Orokorra, modu independentean bizitzeko eta komunitatean parte hartzeko eskubideari buruzkoa, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordeak (Konbentzioaren aplikazioa ikuskatzen duen aditu independenteen organoa) egindako dokumentua, Konbentzioan aintzatsitako eskubideak argitzeko eta estatuentzako interpretazio-gida izateko.

Ohar orokor horrek ezartzen du, besteak beste, nolakoak izan behar duten desgaitasuna duten pertsonen jasotzeko eskubidea duten laguntzek, eta honako elementu hauek biltzen ditu:

- Eskubidea dira.
- Banakakoak izan behar dute.

- Desgaitasuna duten pertsona guztientzat irigarriak, eskuragarriak, onargarriak eta moldagarriak izan behar dute.
- Desgaitasuna duen pertsonak laguntza-zerbitzuak eta horien hornitzaileak aukeratu behar ditu.
- Norberaren beharretara eta lehentasun pertsonaletara egokitu behar dira.
- Malguak izan behar dute desgaitasuna duten pertsonen eskakizunetara egokitzeke; zerbitzua egokitu behar da pertsonaren beharretara, ez alderantziz.
- Ez dira desgaitasuna duen pertsonaren gabeziatan oinarritu behar, haren beharretan baizik.
- Ez dira etxerako bakarrik, edozein eremutarako izan daitezke (enplegua, hezkuntza, politikan eta kulturaren parte hartzea, aisialdia, jolas-jarduerak, etab.).
- Komunitateko bizitza errazteko eta gainerako pertsonetik isolamendua eta banaketa saihesteko pentsatuta egon behar dute.
- Ez dago baimenduta bereizten duen edo autonomia pertsonala mugatzen duen laguntza-zerbitzu instituzionalik.
- Ez zaie beste pertsoneri ezagutarazi behar, baimen aske eta informatuan oinarritutako erabaki batengatik ez bada.

Era berean, 5. Ohar Orokorra laguntza pertsonalak nahitaez izan behar dituen elementuak aipatzen ditu. Horixe da, hain zuzen, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko

39/2006 Legean eta lege hori aldatzen duen aurreproiektuan araututako baliabideetako bat:

- Laguntza pertsonala irizpide pertsonalizatuetan oinarrituta finantzatu behar da, enplegu duin baterako giza eskubideen arauak kontuan hartu behar dira, eta desgaitasuna duen pertsonari esleitu behar zaio. Era berean, finantzaketa pertsona bakoitzaren banakako beharrezanen eta bizi-baldintzen ebaluazioan oinarritu behar da.
- Zerbitzua desgaitasuna duen pertsonak kontrolatu behar du, eta horrek esan nahi du hornitzaile bat baino gehiago izan ditzakeela aukeran zerbitzuak kontratatzeko, edo enplegatzaile gisa jardun dezakeela, eta zerbitzua nork, nola, noiz, non eta zer modutan ematen duen erabaki dezakeela, bai eta jarraibideak eman eta zerbitzuak ematen dituzten pertsonak zuzendu ere.
- Harreman pertsonala da. Bertaratzen diren pertsonak kontratatu, gaitu eta ikuskatu egin behar dituzte laguntza jasotzen duten pertsonak, eta ez dira “partekatuak” izan behar haien erabateko baimen askerik gabe.
- Autokudeaketa, hau da, desgaitasuna duen pertsonak askatasunez aukeratu behar du zerbitzua ematean egin beharreko kontrol pertsonalaren maila, bere bizi-baldintzen eta lehentasunen arabera.
- Desgaitasuna duen pertsonak hala eskatzen badu (adibidez, komunikazio-beharrengatik), laguntza egokiak jaso behar ditu bere aginduak, erabakiak, aukerak eta lehentasunak adierazteko eta jakinarazteko, horiek aintzatetsi eta errespetatu daitezzen.

3 Laguntza Pertsonaleko Zerbitzuari dagokionez, 21 bis artikulua testuan honako alderdi hauek sartzeko eskatu dugu:

- Laguntza pertsonalaren finantzaketa,

irizpide pertsonalizatuetan oinarrituta, eta pertsona bakoitzaren banakako beharrezanen eta bizi-baldintzen ebaluazioan oinarrituta.

- Autokudeaketa, hau da, desgaitasuna duen pertsonak askatasunez aukeratu behar du zerbitzua ematean egin beharreko kontrol pertsonalaren maila, bere bizi-baldintzen eta lehentasunen arabera. Era berean, desgaitasuna duen pertsonak aukera izan behar du nork, nola, noiz, non eta zer modutan ematen den erabakitzeko, bai eta jarraibideak emateko eta zerbitzuak ematen dituzten pertsonak zuzentzeko ere.
- Laguntza pertsonalaren xedea ez da soilik oinarritzko jardueretara eta jarduera instrumentaletara bideratu behar, baizik eta komunitatean berdintasun-baldintzetan erabat parte hartzera ere bai.

4 Etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionez, baliabide horrek komunitate-partaidetzarekin lotutako jarduerak ere barne hartzea proposatu genuen, berdintasun-baldintzetan, eguneroko bizitzako oinarritzko premiak barne hartzeaz gain.

5 Katalogoan ezarritako zerbitzu eta prestazioen bateragarritasuna berariaz adierazi beharra proposatu dugu, segurtasun juridiko handiagoa bermatzeko.

6 Xedapen gehigarri baten bidez, laguntza pertsonalarekin lotutako alderdiak epe jakin batean arautzeko beharra txertatzea (prestakuntza, ziurtatzeko eta gaitzeko baldintzak, hitzarmen kolektiboak, Gizarte Segurantzaren legezko konfigurazioa, kontratazio-tresnak eta kontratatzaileen eta kontratatuen arteko harremana, etab.).

Era berean, xedapen gehigarri baten bidez, eskubide gisa aintzatestea orain 15.1 f) artikuluan aipatzen den laguntza pertsonaleko zerbitzuaren antzekoak diren administrazioek bultzatutako programak eta baliabideak, 15. artikuluko katalogoan ezarritakoaren baliokideak.

Euskal autonomia erkidegoko hezkuntzari buruzko legearen aurreproiektuari egindako ekarpenak

Elkartean ekarpenak egin dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzko Legearen aurreproiektuari, hezkuntza inklusiborako eskubideari dagokionez, bai eta pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea berdintasun-baldintzetan bermatzea helburu duten alegazio-multzo bat ere.

Alegazioek erreferentziatzen hartu dute Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 24. artikulua, zeinak aitortzen baitu desgaitasuna duten pertsonen hezkuntzarako duten eskubidea, eta botere publikoak behartzen baititu “hezkuntza-sistema inklusiboa ziurtatzera maila guztietan, bai eta bizitza osorako irakaskuntza ere”.

Zehazki, honako alegazio hauek aurkeztu ditugu:


1 Zioen azalpenean Konbentzioan aintzatetsitako hezkuntza inklusiborako eskubidea bermatzeko beharri buruzko testu bat sartzea **proposatu dugu**, bai eta Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten baliabide eta zerbitzuetan irisgarritasun unibertsaleko baldintzak bermatzeko beharri buruzko berariazko aipamen bat ere.

2 Euskal Hezkuntza Sistemaren printzipioak aipatzen dituen 2. artikuluan **txer-tatzea** “irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioa”.

3 Helburu berri bat **sartzea** 3. artikuluan jasotakoan artean: “Euskal Hezkuntza Sistemak ikasle guztien aniztasunari be-

har bezalako erantzuna ematen diola bermatzea, haien garapen pertsonala eta soziala sustatzeko, hezkuntza inklusibo baten esparruan”.

4 **34.4 artikuluan**, funts publikoekin finantzaturako ikastetxeetan ematen diren jarduerak osagarriak, eskolaz kanpoko jarduerak eta zerbitzuak jasotzen dira, eta bertan adieraztea proposatu dugu laguntza pertsonalak eta teknikoak bermatu behar direla, bai eta irisgarritasun unibertsalerako baldintzak ere, ikasle guztiek berdind-



tasun-baldintzetan parte hartu ahal izan dezaten.

5 Hezkuntza inklusiboaren esparruan baliabideak eta laguntzak behar dituzten ikasleak edo familiak ordezkatzan dituzten Hirugarren Sektore Sozialeko **erakundeek** kontzientziazio-jarduera guztietan parte hartu ahal izatea.

6 Azterlanen, analisisen eta ebaluazioaren eremuen eta kudeaketaren emaitzen artean **txertatzea** “*hezkuntza inklusiboa eta horretarako beharrezkoa den laguntza-sistema*”.


7 II. tituluan (Hezkuntzarako eta bizikidetzaren positiborako eskubidea) kapitulu berri bat **sartzea**. Kapitulu horretan, hezkuntza inklusiborako eskubidea gauzatzeko beharrezkoak diren printzipioak eta laguntzak garatuko dira, eta baztertu egingo dira desgaitasuna edo hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen bereizketa ezaugarri duten beste

hezkuntza-eredu batzuk. Horrela, kapituluak alderdi hauek jaso beharko lituzke, besteak beste:

- Hezkuntza-sistemaren eraldaketan aurrera egiteko neurriak, benetan hezkuntza inklusiboa eta eraginkorra lortzeko.
- Hezkuntza bereziaren eremuan dauden baliabideak pixkanaka eraldatzea, hezkuntza inklusiboaren esparruan txertatzeko.
- Hezkuntza inklusiboaren balioak eta printzipioak.
- Hezkuntza-sistemaren izaera inklusiboa bermatzeko beharrezko laguntzak eta doikuntzak.
- Hezkuntza inklusiboaren arloko prestakuntza irakasleentzat.
- Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea hezkuntza inklusiborako eskubidea bermatzerakoan.
- Hezkuntza inklusiboaren esparruan trantsizio eraginkorrak bermatzea.
- Desgaitasuna eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen, familien eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzan dituzten erakundearen parte-hartzea.
- Hezkuntza inklusiboaren eremuan eza gutza ebaluatzeko eta kudeatzeko sistema.
- Irisgarritasun unibertsalerako eskubidea bermatzea hezkuntza inklusiboaren esparruan.

8 80.c) artikuluan adierazitako diskriminazio-arrazoien artean desgaitasuna berariaz **txertatzea**.

Laburbilduz, **Elkarteanek** aurkeztutako ekarpenak lagungarriak izan daitezke bermatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzaren Legearen aurreproiektuan arautzen den Euskal Hezkuntza Sistema Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan eskubide gisa aintzatetsitako hezkuntza inklusiboaren erudian oinarrituko dela.



EUSKADIKO BIZIGARRITASUN- BALDINTZEI BURUZKO DEKRETUA

Joan den azaroaren 30ean jarri zen indarrean 80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzek eta zuzkidura-bizitokiek bete beharreko gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ezartzen dituen, bai eta erabilera nagusia bizitegitarakoa duten eraikinek ere, duinak, egokiak eta irisgarriak izango direla bermatzeko.

Neurriak:

Etxebizitzak 35 m² erabilgarri izango ditu gutxienez bi pertsonarentzat, eta horiei balkoi edo terrazarako gutxienez 4 m² gehitu behar zaizkie. **Sukaldeak** 7 m² izango ditu, gutxienez, egongelak 13 m² eta komunak 3,5 m².

Zuzkidura-bizitokiek 25 m² izango dituzte pertsona bat bizi bada.

10 m²-ra arteko **kanpoko espazioak** ez dira kontuan hartuko eraikigarritasunari dagokionez. Horien ordez, plangintzak aukera ematen duenean, neurri bereko begiratoki itxi bat jar daiteke; dena den, ez da zertan kanpoko espaziorik jarri behar. Baina, kanpoko espaziorik ez badago, etxebizitzaren egonlekua gutxienez 8 m² handitu beharko da, eta azalera hori ondore gutzietarako konputagarria izango da.

Irisgarritasuna

Eraikineko ibilbide eta espazio **gutzietarako sarbide librea** bermatzen du, eta sustapen berri bakoitzean mugikortasun urriko pertsonentzako egokitutako etxebizitzaren erreserba ezartzen da.

Gela bakoitzean gutxieneko neurri batzuk eskatuko dira (sukaldea, jangela-egongela, komuna eta gutxienez gela bat), gerora mugikortasun urria duten pertsonak erabili ahal izateko edo egokitzapen txiki batzuk eginez egokitu ahal izateko, eta etxebizitza guztiak erraz moldatu ahal izango direla bermatuko da.

Logelek gutxienez 10 m² izan beharko dituzte, edo 11,5 m² biltegitratze-espazioa badute. Hirugarren logelak bakarrik izan dezake 8,5 m², baldin eta egongelari 3 m² gehitzen bazaizkio.



Genero-ikuspegia:

Atari eta eremu komunitarian segurtasunik eza sortzen duten **zoko eta angelu itsuak saihesten dira**, eta ahalik eta gehien integratzen dute egongela-jangela-sukaldea, etxeko lanak agerikoak izan daitezten eta familia-unitate osoak partekatu ahal izan ditzan.

68/2000 Dekretua aldatzea:

Apirilaren 11ko hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen **68/2000 Dekretuaren III. eranskina aldatzen da**, honako bi alderdi hauetan:

- Solairu bat baino gehiago dituzten etxebizitzetan, plataforma jasotzaile bat instalatzeko aukera emango duten zehaztapen teknikoak eta diseinu-zehaztapenak ezarriko dira.
- Korridoreak 1,00 m-ko zabalera izango du, gutxienez, puntu guztietan.

Dekretuak dakartzan berrikuntzen artean dago eraikinetan bizikletak, umeentzako aulkiak eta mugikortasun urriko pertsonentzako laguntza-produktuak gordetzeko lokal bat izateko betebeharra. Era berean, etxebizitzak duen kanpoko espazioa balkoi edo terraza motakoa bada, barrualdetik sartu ahal izango da bertara, eskailearik gabe, eta malda handirik gabe; horrez gain, arropa-esekitoki batera edo patio itxira zuzenean sartzea bermatuko da. Nolanahi ere, espazio horretara, ahal dela, arropa-ziklorako zehaztutako espaziotik edo hori integratuta dagoen espaziotik iritsi ahal izango da.

Araudi berriaren arabera, etxebizitza, ahal dela, etxebizitza moldakorraren irizpideak kontuan hartuta eraiki behar da, eta erabilerrak erraz eta azkar egokitu ahal izango dira hainbat funtziotara. Etxebizitza zatituta dagoenean, etxebizitza malguaren irizpideak kontuan hartuta egon ahal izango da zatituta, erabiltzaileen egoeraren edo premien arabera banaketa aldatu ahal izateko, etxebizitzaren bilakaera eta eraldaketa fisikoa erraztuz denboran zehar.

Azkenik, aipatu behar da udalerrri guztiek hiru urteko epean egokitu beharko dituztela beren plangintzak eta eraikitze ordenantza osagarriak dekretua betetzeko, eta osorik birgaituko diren etxebizitzak, berriz, dekretuan jasotzen diren neurrietara egokitu beharko direla.

BEHATUZ

Eusko Jaurlaritzak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren barruan, web-atarri berri bat estreinatu du, Behatuz izenekoa. Atari horren helburua izango da Euskadin arlo horretan “gizarte-zerbitzuen inguruko ikerketa, berrikuntza eta ezagutzaren sortzeari eta zabaltzeari” eskainitako espazioa “berritzea”.

Atariak lau atal nagusi ditu: **Ikertuz** (gizarte-zerbitzuen arloko azterketa eta ikerketa atala), **Ezagutuz** (gizarte-ezagutza eta -informazioari buruzko atala), **Berrituz** (gizarte-zerbitzuetako berrikuntzari buruzko atala) eta **Gizartera-tuz** (gizarte-zerbitzuei buruzko analisiaren eta gaurkotasanaren argitalpen digitala, sortutako ezagutza berria zabaltzeko).

“Gizarte-zerbitzuen **erabiltzaile diren** pertsona eta erakundeentzako erreferentzia dokumentala da”, baita “gizarte-ekintza hobetzeko topagune eta lan partekatua arloko erreferentzia” ere.

Jakinaren gainean egon zaitezten, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiak gain, Euskadik hainbat arlotan espezializatutako gizarte-gaietako beste behatoki batzuk ditu:



Haurren eta Nerabeen Euskal Behatokia



Familiaren Euskal Behatokia



Gazteen Euskal Behatokia



Immigrazioaren Euskal Behatokia



Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia

NOLA HITZ EGIN

desgaitasuna

duten pertsonen

inguruan

EDEKA euskal koordinakundeak (Elkartean koordinakundeko kidea da) “Nola hitz egin desgaitasuna duten pertsonen inguruan” gida egin du. Gida hori baliagarria izango da komunikabideentzat, desgaitasunarekin eta desgaitasuna duten pertsonekin zerikusia duten gaiak zuzen eta zehatz nola komunikatu jakiteko.

Euskadin, pertsonen % 8,3k desgaitasunen bat du. Hala ere, oraindik ez dago normalizatuta gure parte-hartzea gizartearen arlo guztietan, adibidez, komunikabideetan. Horiek, gure parte-hartzea gizarteratzeko eta edozein egunetan komunikabideetan agertzeko aukera eman diezagukete, hau da, desgaitasuna duten pertsonekin desgaitasunaren gaiak edo egun zehatzetan hitz egiteko harremanetan jartzeaz gain, komunikabideek haien egunerokotasunean txerta ditzakete: desgaitasuna duten iritzi-emaileak, adituak, albisteen lekukoak, etab. barne hartuta; beraz, desgaitasuna duten pertsonak desgaitasuna bera ardatz duten informazioetatik kanpo ere agertuko dira.

Eskuliburu osorako sarbidea duzue helbide honetan: <https://elkartean.org/argitalpenak/orokorrak>.



Enpleguaren Euskal Legeari egindako propo- samenak

Elkarrean hainbat proposamen egin dizkio Enpleguaren Euskal Legearen aurreproiektuari, desgaitasuna duten pertsonen lan-ingurune ireki, inklusibo eta irisgarrietan lan egiteko duten eskubidea bermatzeko, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoaren arabera.

Hona hemen azpimarratzekoak diren proposamenetako batzuk:

- 1** Zioen azalpenean berariaz **sartzea** Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren 27. artikulua, enpleguari buruzkoa.
- 2** **Proposatu dugu** irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren, gizarteratzearen eta aukera-berdintasunaren definizioak txertatzea, Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan.
- 3** **Eskatu dugu** Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioan ezarritakoa aplikatzeko, hau da, enplegu arrunt inklusiborako sarbidea sustatzeko nagusiki, eta enplegu babestua murrizten joateko.
- 4** **Proposatu dugu** enplegu-politika publikoetan, lehentasunezko arreta behar duten kolektiboak (horien artean, desgaitasuna duten pertsonak daude) kontuan hartzeaz gain, enplegu inklusibora bideratutako politiken lehentasunezko izaera jaso beharko litzatekeela, bai eta desgai-

tasuna duten emakumeak lehentasunezko arreta jasotzeko kolektibo gisa berariaz aipatzea ere, diskriminazio bikoitza jasaten dutelako.

